

# Legazpiko Agenda 21eko Foroaren akta

## 2014ko 6. tailerra

Eguna: 2014ko ekainaren 5ean.

Lekua: udaletxeke Batzar Aretoan.

Ordutegia: 18:30etik 20:00etara.



**Gaur, ekainaren 5ean, Ingurumenaren munduko eguna da, eta Agenda 21eko Foroaren uda aurreko azkeneko saioa egin dugu.**

Eta azkeneko urteetan garai honetan ohikoa den bezala, gaur ere besteetan baino jende gutxiago bildu gara. Arratsaldeak luzeak dira, eguraldi ona egiten du,... eta jendeak bestelako planak ditu. Baina gaur hemen bildu garenok gogoz eta ilusioz etorri gara eta forma eman diogu tailer interesgarri honi.



M<sup>a</sup> Cruz Lizarazu – Xabier Baztarrika (Buskabaso) – Manuel Fernandez – Floren Gutierrez – Montse Vallejo – Edurne Huesa (Ingurugela Legazpi) – Rosa Makibar – Rafa Gomez (Buskabaso) – Juan Carlos Agirre – Pilar Makibar – Igor Urrate (zinegotzia) - Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) – Zorione Aierbe eta Iciar Montejo (dinamizazio taldea).

**Milesker, eskerrik asko** etorri zaretelako eta Foro honek eskatzen duen jarrerarekin parte hartu duzuelako; pozgarria da bertan parte hartzea!

## Zertaz arituko gara? **3 gai** gaurko

Modu ordenatuan gaurko tailerra 3 zatitan banatu dugu eta bakoitza lan bat egiteko erabili dugu:



1. Berriak.
2. Legazpiko Agenda 21eko online Foroa.
3. Egin gabe dauden 2008-2014 epealdiko Tokiko Ekintza-planaren ekintzak.

Ikus dezagun jarraian, banan-banan:

### 1. Berriak

- **1. BERRIA: Txorientzako habiak jarri dira Legazpin**
  - Joan den maiatzaren 22ko Agenda 21eko Foroaren tailerrean ikastetxeekin hartutako konpromisoari erantzunez, azkeneko astean zehar txorientzako 8 habi jarri dira Legazpiko leku desberdinetan: 2 Kukue tabernaren atzealdean, 2 Kultur Etxeko atzealdean dauden eskaileretan eta 4 Olazabal institutuaren ondoren dagoen basotxoan.
  - Azkeneko 4 habiak Agirre-Etxeberri parkean jarriko dira, bertako lanak bukatuko direnean.

Gai horrek beste kontu baten gaineko hausnarketa eta eskaria ekarri du: Giroa tabernaren inguruan sortzen den zikinkeria –pertsonek batzuk erreka ere botatzen dute zaborra-. Eta konponbidea izan daitekeena zehaztu dugu:



- Kartel bat jar daiteke eta hormatxoak pintatu erreka garbi mantentzeko mezua jarritz; horrelako zerbait: "Erreka guztiona da; garbi mantentzen dezagun".
- Tabernako jabeek paperontziak jar ditzatela eska diezaiekegu.



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Zentzu horretan, eta tabernetako terrazetan sortzen diren hondakinen kontua orokorra denez, honako hausnarketa egin dugu: tabernariei ezinbestean eskatu beharko diegu inplikazio handiagoa hondakinak kudeatzeko orduan, beti ere Udalaren laguntzarekin. Eskatu al diezaiokegu terraza duen taberna bati gaika biltzeko zakarrontziak jar ditzala? **Udalak terrazak arautzen dituen ordenantzan horrelako eskakizun bat sar daitekeen aztertuko du.**

- **2. BERRIA: Latxartegi parkean dagoen zikinkeria gainean herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina egingo da.**
  - Kontu hori ez da berria eta Eskolako Agenda 21eko ikasleek hartu dituzten konpromisoen artean dago parkea garbi mantentzearena.
  - Agian zertxobait hobetu da baina kontzientziatze-lanarekin jarraitu beharra dagoela aipatu da. Horregatik, ekainean bi ekintza burutuko dira:
    - Alde batetik 2 kartel handi jarriko dira parkean eta, bertan, Eskolako Agenda 21ean parkea garbi mantentzeko hartu diren konpromisoak azalduko dira.
    - Eta hurrengo astean ez da lurrera botatako zaborra jasoko eta ondoren, jasotako guztia eta zakarrontzietan jasotakoa agerian jarriko da.

Foro gisa asko kezkatzen gaitu kontu honek: zikinkeria, garbiketa, herritarren ohiturak,... Gaia behin eta berriz ateratzen da eta zerbait egiten jarraitu behar dela uste dugu. Agian Madrilgo Bruneteko Udaletik ikas dezakegu, aitzindariak baitira euren sentsibilizazio kanpaina desberdin eta berritzaileekin.

- **3. BERRIA: Erreka Egunaren gaineko bideoa emango da uztaileko prestatutako egitarauaren barruan.**
  - Uztaileko bi gauean Ikatza Argazkilari elkarteak Erreka Egunean ateratako argazkiekin egin duen muntaketa proiektatuko du.

Eta gonbidapen horren ondoren, arratsalde honetarako prestatu dugun bigarren gaiari ekin diogu.

## 2. Legazpiko Agenda 21eko online Foroa.

Nola erakarri jende gehiago Tokiko Agenda 21eko Forora? Nola egin tailerretara etorri ezin direnek Foroan parte har dezaten? Bi kezka horiek izan dira eta dira taldearen erronka.

**Legazpiko Agenda 21eko online Foroa**, parte hartzeko udal web orrian txertatu dugun gune birtuala da eta gure Foroa osatzen du. Horrekin, nolabait, gure kezkarri erantzutea lortu dugu<sup>1</sup>:

**LEGAZPIKO UDALA** CASTELLANO

SARRERA | **BIZI** | EZAGUTU | ZURE ZERBITZURA | UDALA | AREA PRIBATUA | KEKAK ETA IRADOKIZUNAK | AGENDA

Hasiera > Bizi > Agenda 21 > Online foroa

**AGENDA 21 FOROA / FORO AGENDA 21**

HARPIDETU EGUNERAKETAK JASOTZEKO

**EREMUAK**

Agenda 21 Foroa / Foro agenda 21 (4)

Natur baliabideak eta biodibertsitatea / Recursos naturales y biodiversidad (2)

Hirigintza / Urbanismo (2)

Klima-aldaketa / Cambio climático (0)

Mugikortasuna / Movilidad (0)

Sentsibilizazioa eta hezkuntza / Sensibilización y educación (0)

Udal kudeaketa iraunkorra / Gestión

Legazpiko Agenda 21eko Web Foroan zaude. Udaletxean hilean behin biltzen den Foroa osatzen duen parte hartzeko gunea.

**Funtzionamendua:** bilera bakoitza egin baino astebete lehenago, galdera bat egingo dugu aztertuko den gaiari buruz; ondoren, Web orrian jasotako ekarpenak bildu eta Forora eramango ditugu.

Taldean eztabaidatu ondoren, hemen bertan ikusi eta irakur dezakezun akta batean jasoko ditugu emaitzak. Horrela, Forora joan ezin baduzu ere, zure iritzia jaso ahal izango dugu. [CONTINUE READING "2 Mirandaoia elurretan"](#)

Gaur izan dugu lehen aldiz Forotik sortu zen proposamen honen berri:

<sup>1</sup> Proba egiteko epea irekiko da lehenbizi, laster Legazpiko Udalaren web orri berria aurkeztuko da eta.



- **Nola erabili?** Hauxe da proposamena:

- Bilera bakoitza egin baino astebete lehenago galdera bat egingo da web orrian tailerrean aztertuko den gaiari buruz –Foroaren titulua jarriko da, argazki bat eta erantzun beharreko galdera-. Jasoko diren ekarpenak bilduko dira eta Forora eramango dira.
- Taldean eztabaidatu ondoren, emaitzekin osatuko den akta Web orrian zintzilikatuko da.
- Online Foroan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da Disqus delakoan –blogetan eta web orrietan eztabaidetarako zentralizatutako plataforma informatikoa eskaintzen duen lineako zerbitzua-erregistratzea.
  - Interesatuta dagoena bilaketak egin ditzake Foroan, gaien arabera, dataren arabera, ....

## Zer iruditu zaigu ideia?



- Atsegin dugu! Interesgarria da Forora etorri ezin duenarentzako.
- Gainera, teknologia berrietara ohituta dagoenarentzako, oso erabilerraza da.
- Zalantzak sortu zaizkigu anonimotasunarekin: ez litzateke interesgarria izango identifikazioaren bat eskatzea?

Eta online foroaren diseinuari dagokionez, aldatzekorik edo hobetzekorik? Taldeak bere ekarpena egin du; hona hemen horren laburpena:



### Online Foroaren diseinua eta itxura **hobetzeko proposamenak:**

- Pantailaren sarrerako informazioa sinplifikatzea: adibidez, marrazkia mantenduz eta azalpeneko testua ezkutatzuz.
- Marrazkia egokitu urratsak elkartuz eta, ahal dela, borobilduz.
- Galderari buruz egingo diren ekarpenak egiteko mugaeguna jarri.
- Interfazean hileko galdera bakarrik erakusteko aukera aztertzea –historikoa ezkutatzuz, beste bide batetik kontsultatzeko aukera egon daitekeen arren-.

Eta azkenik, ideia berriak eman ditugu erreminta berria zabaltzeko:



Online Foroa **ezagutzera emateko proposamenak:**

- Legazpiko Agenda 21eko harreman-zerrenda erabil daitezke horren berri emateko eta bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzeko.
- Legazpiko Udalak berriak online emateko aukera badu, horren berri ere bertan ematea.




### 3. Egin gabe dauden 2008-2014 epealdiko Tokiko Ekintza-planaren ekintzak.

Eta online Foroaren irudiarekin eta ideiarekin, gaurko hirugarren eta azkeneko gaiari heldu diogu: egin gabe dauden 2008-2014 epealdiko Tokiko Ekintza-planaren emaitzak.

Zeintzuk dira egin gabe geratu diren ekintzak? Eta plan berria 2015ean – hauteskundeen ondoren– egingo dela kontuan hartuta, zeintzuk dira Udalak 2014-2015 urteetan bultzatu nahi dituen ekintzak? Eta, azkenik, zeintzuk geratuko dira baztertuta eta zergatik?

Hori dena zehatz-mehatz aztertu dugu; ikus ditzagun segidan datuak.

- 2008-2014 epealdiko Ekintza-plana osatzen duten ekintza guztietatik...
  - % 58 burututa daude.
  - Horrek esan nahi du %26 geratzen dela betetzeko –“hasteko” diren ekintzen % 8 eta “hasitako” ekintzen % 18 batuta-: **41 ekintza guztira.**



Zer egin egiteko dauden ekintzekin?

**41 ekintza horietatik 32 berriro aztertu egin dira udaletxean**, ondoren zer egin erabakitzeko: aurrera egin, baztertu, berriz formulatu,....

Hausnarketa horren ondorioz, honela sailkatu dira 32 ekintza horiek:

Acciones que, por diversas causas, no se van a ejecutar en 2014 y 2015

Acciones complejas para las que proponemos una reflexión más profunda durante la revisión del Plan de Agenda 21 o, en su caso, del Plan de Igualdad.

Acciones a ejecutar entre 2014 y 2015



# Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Hona hemen zehaztapena:

<b>LE 1 - INGURUNEA ETA BIODIBERTSITATEA GORDETZEA ETA SUSPERTZEA</b>
1.1.10. Legazpiko natur ingurunearekiko jokabide desegokien aurrean herritarren "salaketa" eta kontzientzia kritikoa sustatzea.
1.1.3. Urtatzako urtegia: urtegiaren ingurunea berreskuratzeko eta balioesteko aukerak aztertzea.
1.1.2. Gorostiaga mendia babestea.
1.1.6. Bideak eta bidezidorrak mendian zehar: bideak mantentzeko jarduketak bultzatzea (gutxienez lurzoru publikotik igarotzen direnetan).
1.1.8. Herrialdea zaintzeko akordioak sustatzea.
1.1.9. Legazpiko baso- eta oihan-eremuak modu iraunkorrean kudea daitezela sustatzea.
1.2.4. Natur ondarea kudeatzeari dagokionez, jokabide egokien berri ematea.
1.3.6. Iturburuak zaintzea.
2.2.1. Lursailak erostea bertako landareak landatzeko.
<b>LE 2 - KLIMA BABESTEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA, MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO EREDUAK SUSTATUZ ETA ENERGIAREN KONTSUMO ARRAZIONALA BULTZATUZ.</b>
2.2.2. Eusko Jaurlaritzarekin batera jarduteko protokoloa egitea, ibai ertzetako landareak hobetzeko eta zaintzeko plana lortze aldera.
2.3.2. Urez betetzeko arriskuan dauden urbanizatutako eremuak babesteko ekintzak aztertzea, Eusko Jaurlaritzak egin duen zonifikazioaren arabera eta arreta berezia jarriz Elorregi eta Plazaola eremuetan.
2.3.1. Legazpin klimaren aldaketara egokitzeko har daitezkeen neurri zehatzei buruz hausnartzea.
2.1.15. "car sharing" ezartzeko aukera aztertzea, alokairua orduka eskainiz.
2.5.2. EVE erakundearekin urteko hitzarmena sinatzea, energia eraginkortasunerako sistemak sustatzeko eta udal eraikinetan eguzki-plaka fotovoltaikoak ezartzeko.
2.5.4. Herritarrei informazioa eskaintzea, euren etxebizitzetan energia berriztagarrien instalazioak jar ditzaten.
<b>LE 3 - KONTSUMO ETA EKOIZPEN ARDURATSUAK SUSTATZEA</b>
3.3.9. Eusko Jaurlaritzari haurtzaindegietan pixoihal berrerabilgarriak erabiltzeko proposamena luzatzea.
3.3.5. Garbiguneen sarea erabiltzea ontzi fitosanitarioak biltzeko.
3.3.8. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak aprobetxatzeko helburuarekin eskualde mailako estrategia diseinatzea.
3.2.2. Enpresetan ingurumena kudeatzeko sistemak ezar daitezela sustatzea.
<b>LE 4 - HIRI-EREMUAREN KALITATEA HOBETZEA AHALBIDETUKO DUEN HIRIGINTZA HARMONIKOAREN ALDE EGITEA</b>
4.1.5. Futbolzelaiko aldageletan eguzki-energia aprobetxatzea.
<b>LE 5 - HERRITARRAK PARTE HARTZEAN ETA BALOREETAN HEZTEKO PROGRAMETAN INPLIKATZEA, ETA LEGAZPIARREN IDENTITATEA GARATZEA</b>
5.2.2. Legazpiren "ezaugarria" zein izan daitekeen bilatzea.
5.2.3. Auzolana berreskuratzea.
5.3.1. Legazpin dauden elkarteei buruz azterketa egitea.
<b>LE 6 - BIZI-KALITATEA ETA JUSTIZIA SOZIALA BULTZATZEA</b>
<b>LE 7 - HERRIKO EKONOMIA BIZIA ETA INGURUMENA KALTETU GABE ENPLEGUA</b>





## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



### BULTZATUKO DUEN EKONOMIA SUSTATZEA

7.2.5. Emakume enpresariei laguntza eskaintzea.

7.3.12. Ohiko industria-sektoreetako enplegu teknikoetan emakumezkoen eta gizonezkoen artean dagoen desberdintasun kuantitatiboa murriztea, horietan ere emakumeen parte hartzea bultzatuz.

7.4.2. Enpresak gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren alde lan egin dezatela bultzatzea.

7.2.3. Barrendiolan Naturaren eta Kirolaren interpretazio-zentroa sortzeko aukera aztertzea.

7.3.6. Eskualde mailan enpresak sustatzeko Plan bat egitea.

7.3.7. Goierri eskualdearekin sinergiak bilatzea.

### LE 8 - IRAUNKORTASUNA LORTZEKO UDAL KUDEAKETARAKO ERAGINKORRAK DIREN PROGRAMAK BULTZATZEA

8.2.7. Ekonomia eta Hirigintza udal departamentuen artean informazioa trukatzeko bideak ezartzea, eguneratze-lana etengabea izango dela bermatzeko.

8.1.4. Baterako erantzukizuna eta bateratzea sustatuko duen egitura soziala sustatzea, herritarrentzako erreferente izango dena.

8.2.1. Eguzki-energiaren instalazioetarako dauden tasetan hobariak sustatzea.

Laburtuz:

- Egiteko dauden 32 ekintzetatik, Udalak:
  - **Horietatik 8 ezingo direla epe motzean martxan jarri uste du** – arrosaz markatu dira horiek-.
  - 2014an eta 2015ean **6 ekintza jarriko ditu martxan** –berdez markatu direnak-.
  - Gainerako **18 ekintzak hobeto aztertu behar direla** uste du –horiz markatutakoak-. Ekintza-plan berria egiteak aukera emango du horretarako. Bestalde, ekintza horietatik gehienak ingurunea dute hizpide.

Datu horiek mahai gainean ditugula –edo pantailan hobe esanda–, unetxo bat hartu dugu sortu zaizkigun iritziak eta gogoetak partekatzeko.



**Hainbat gogoeta** Tokiko Ekintza-planean egin gabe geratu diren ekintzei eta planaren etorkizunari buruz:

- Oro har, Legazpiko ekintza politikoan eta programetan biodibertsitatea ez dela lehentasunezko gaia ikusi dugu.
- Airearen kalitateak kezka sortzen du; hainbat bizilagunek Legazpin "metal usaina" egoten dela diote. Udalak airearen kalitatea neurtzeko kabina eskatuta dagoela adierazi du.
- Ikaste aldera eta hurrengo Planari begira, komenigarria izango litzateke Foroak berak markatzea lehentasunak lerro estrategiko bakoitzeko; horrek ere arrastoren bat emango die arduradun politikoei.


Eta **2 eskari ere jaso ditugu**, aipatutako gaiekin lotuta:

- Bikuña parean ibai ertzean dauden haltzek errekaren ibilguan sortzen duten "presatxoa" azter dadila eta neurri egokiak har daitezela.
- Junetorri autobus zerbitzuaren ordutegia berrikusiko denean, ahal izanez gero, kontuan hartzea komeni da urtean zehar trenen ordutegian ematen diren aldaketak.

## Eta bukatzera goaz!

Garaiz gainera eta arratsalde honetarako jarrita genituen helburuak beteta. Orain, gogoz emango diogu hasiera udari eta atsedena emango diogu Agenda 21eko Foroari.

Tailerra gaurko arratsaldea laburbiltzen duen marrazki batekin bukatzen dugu.



Taldea... **milesker** beste behin ere zuen denbora eta gogoetak gurekin partekatu dituzuelako, eta udaz goza dezazuela! Oporren bueltan, hemen izango gaitzue!

**Eskerrik asko guztioi!**

**Irailaren 18ra arte!**